

Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

212. zenbakia

Data 2006-11-08

24986 orria

7 UDAL ADMINISTRAZIOA

USURBILGO UDALA

Haur Eskolako erregelamendua aldatzea. Behin betiko onespena.

USURBILGO UDALA

Haur Eskolako arautegiaren aldaketari behin betiko onespena ematea.

Udalbatza Plenoak, 2006ko urtarrilaren 31n egindako Ohiko Bilkuran, beste batzuren artean, Usurbilgo Haur Eskolako arautegiaren aldaketa hasieraz onartu zuen.

2006ko martxoaren 20ko, 54. zenbakia duen Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu zen iragarkia eta espedientea jendaurreko informazio-tramitean eduki ondoren ez da alegaziorik aurkeztu.

Udalbatza Plenoak, 2006ko irailaren 26an egindako Ohiko Bilkuran, Usurbilgo Haur Eskolako arautegiaren aldaketa behin betirako onartutzat eman zuen.

Beraz, Toki Erregimenaren Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 70.2 artikulua dionaren arabera, Arautegiaren testu osoa argitaratzen da.

Usurbil, 2006ko urriaren 23a.—Luismari Ormaetxea Santsiñena, Alkatea.

(4540) (11009)

UDAL HAUR ESKOLAREN ARAUDIA

1. artikulua.

Araudi honen xedea haur eskolaren udal zerbitzua (0-3 urte bitartekoa, Haur Hezkuntzako 1. zikloa) arautzea da, giza- eta hezkuntza- zerbitzua dena, emakida bidez zeharkako gestioz eskainitakoa, haurrari bere beharren araberrako eskolaurreko hezkuntza emanez, teknika pedagogiko egokienez baliatuz eta bere hezkuntza haurra inguratuta dagoen kultur-girora egokituz.

Komunitate-zerbitzu denez, haur Eskola Usurbilgo haur guztientzat irekita dago, herri guztiaren beharrak asetu beharko dituen, plaza kopurua izanik muga bakarra.

Udalerriko umeen eskaria asetutakoan, Zentroak eskualdeko herrietako haurrei ere eskaini diezaieke zerbitzua.

Haur eskolak izango dituen soslai edo identitate ezaugarriak honako hau izango dira:

a) Hezkuntzari dagokionez, metodo pedagogiko egokienak eta bizi duen kultur-giroa hartuko dira kontuan. Aldi berean, gure hizkuntzak duen egoeraz jabeturik, haurrek txiki-txikitatik euskara ikas dezaten tresna edo baliabide egokia izango da.

b) Beste haur eskola batzuren esperientziak ezagutu eta alor honetan izaten diren aurkikuntzak.

c) Behar fisikoei erantzuna eman, hala nola, elikadura egokia, osasun araketa eta zainketak maiz-maiz, familia eta eskolako hezkuntzaren arteko traumak ekiditu, sormena lantzea, bere gaitasun afektiboak, intelektualak zein psikikoak garatzea, bere nia eta kanpoko mundua, eskolaurreko hezkuntza, eta sormenaren garapena etab.

Honako hauek izango dira haur eskolaren identitate-ezaugarriak:

a) Zentroaren funtzionamendua demokratikoa eta anitza da, hezkuntzaren helburuak lortzeko funtsezko protagonista izango dira guraso eta tutoreak eta hauen partaidetasuna bultzatuko da.

b) Zentroaren irakaskuntza-hizkuntza euskara izango da eta dagokion metodologiaren bidez, hizkuntza hori irakatsiko da, baita ama-hizkuntza euskara ez duten haurrei ere.

c) Zentroak izaera laikoa eta pluralista izango du, guraso eta hezitzaileen iritzi filosofiko, politiko edo erligioso errespetatuz eta inolako eskolatzeko-jokaerarik gabe.

d) Zentroa gainerako hezkuntza-zentroekin koordinatuko da, bakoitzak duen autonomiaren barruan esperientziak elkar trukatzeko, elkarrekiko informazio eta lankidetzaren berri emateko.

e) Beren seme-alabek hezitzen jarraitu behar duten hezkuntza-zentroa aukeratzeko askatasuna bermatuko die Zentroak guraso eta tutoreei.

f) Aurrematrikulazio aurreko garaian udalerriko ikastetxeek eta Usurbilgo ikasleak eskolarizatzen dituzte ikastetxeek beraien zentroaren hezkuntza eskaintza ziklo hau bukatzen duten umeen gurasoei helarazteko aukera izango dute eta baita zentroaren lokaletan hitzaldi informatiboak emateko aukera beti ere, zentroaren Batzorde Kudeatzaileari alde zuzenarekin baimena eskatutakoan eta bere oniritziarekin ere.

2. artikulua.

Haur eskolan plaza eskatzen dutenek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Eskara-orria behar bezala beteta ekarri, horrekin batera osasun egoera onean dagoela ziurtatzen duen mediku-agiria.

b) Haurrak hartu dituen txertoak adierazi. Gora-behera bereziengatik, haurrak dagozkion txertoak hartu ez baditu, hori eragozten duen arrazoia azaltzen duen mediku-agiria ekarri beharko du eta zentroko Zuzendaritza Batzordeak erabakiko du onartu ala ez.

c) Dirua kobratzeko ezarritako dagoen sistema onartu eta eskura jarri Banketxe edo Aurrezki Kutxako kontu korrante edo libreta zenbakia.

3. artikulua.

Haur eskolako ikasturtea irailean hasten da eta uztailean bukatu, abuztuan oporrak izanik. Ikasturtea behar den denboraz planifikatzeko eta mota guztitako aurrikuspenak egiteko, aurrematrikulazio epea ezarriko da, martxoa-apirila, hurrengo ikasturtean hasteko moduan dauden haurren izenak hartzeko, hau da, irailean hasteko moduan daudenentzat nahiz beranduago hasiko direnentzat (haurdun daudenei ere matrikulatzeko aukera emanaz) matrikula-epea prentsaren bidez jakinaraziko delarik.

4. artikulua.

Haurra haur eskolara ohitzeko egokitze-prozesua egitea derrigorrezkoa da eta bertako hezitzaileek aztertuko dute haurren egokitzapena; zentzuzko denbora igaro ondoren haurra ez bada zentrori egokitu eta lortzeko aukera gutxi dagoela ikusten bada, bere etxera bidaliko da, alde zuzenarekin zentroaren arduradunak planteatuta. Erabaki hau hartzea Zuzendaritza Batzordeari dagokio.

5. artikulua.

Onarpenerako irizpideak:

Usurbilen erroldaturiko umeak haur eskola honen onuradunak izango dira. Behin hauek matrikulatutakoan, plaza gehiagorik izanez gero Usurbilen ez erroldaturiko umeek sartzeko aukera izango lukete. Kasu honetan urtero Zuzendaritza Batzordeak Usurbilen ez erroldaturiko erabiltzaileek ordaindu beharreko kuoten zenbatekoak proposatuko ditu, bere kasuan Udalak onartu beharko lituzkeenak. Kasu guztietan ordaindu beharreko kuoten zenbatekoa erabakitzea Udalaren eskuduntza izango da.

Haurrak matrikulatuko dira aipatu aurrematrikulazio aurreko epean. Ikasturte baten plaza eskea haur eskolaren ahalmena baino handiagoa bada, egoeren lehentasuna ordena honi ekingo zaio:

— Lehentasuna usurbildarrek, Usurbil udalerrian erroldatutakoek alegia, izango dute.

— Matrikulatu nahi duen haur horren anai-arrebaren bat lehendik haur eskolan matrikulatuta egotea.

— Haur batetik gorako erdialdietako seme-alabak.

— Matrikulatu nahi duen haur horren anai-arrebaren bat haur eskolan egona bada.

— Beste guztien artean zozketa bat egingo da plazak betetzen joateko.

Matrikulatzeko garaian, hilabete bateko kuota ordainduko da berme gisa. Diru kopuru hau - itzuli egingo da ikasturtearen amaieran. Hala ere, jarritako bermea berreskuratzeko eskubidea bertan behera geldituko da matrikulatu den haurra ez balitz eskolarizatuko edo eskolako zerbitzua ikasturtean zehar utziko balu, gurasoen erabakiz.

Usurbilgo haur guztiak eskolarizatutakoan, zentroak eskualdeko haurrei zerbitzua eskaini diezaieke.

Zerbitzua eman ahal izateko, 9. atalean aurrikusitako umeen «ratio»-aren %50^a matrikulatu behar da gela bakoitzean. 2-3 urte bitarteko gelan herritarrek osatu behar dute portzentai hau.

Haur eskolan onartzen ez diren haurrekin zerrenda bat egingo da aipatu irizpideen arabera eta ikasturtean zehar hutsune bat gertatzen denean ordenari jarraituko zaio. Inolako bajarik sortuko ez balitz, behin izena emateko epea zabaltzen denean berriro ere izena eman beharko lukete,

aurretik lortutako eskubideak galduz.

Bestalde, izena emanda duten haurren bat izaera berarizko edo berezizat jotzen bada, Eskolaren Zuzendaritzari legokioke hezitzaileen eta Usurbilgo Udalaren Gizarte Zerbitzuen gizarte langileen txostenak eskatzea.

Berarizko edo kasu berezizat ondoko egoera bietarikoa jotzen da:

1. Haur berezia: Bere egoera fisiko edo sikikoarengatik mota honetako dinamikan sartzea aholkatzen denean edo zainketa berezitua beharra duenean.

2. Familia egoera edo egoera sozioekonomikoarengatik, eta egoera horrek berarizko tratamendua eskatzen duenean. Diru iturri mugatuak dituzten familientzat, gizarte hezkuntza eta laguntza tarifaren prezio pertsonalizatuak ezarri eta onartu ahal izango ditu Udalak; proposamen horiek Udaleko Gizarte Zerbitzuetako Sailak aztertu eta proposatuko ditu, zentroko Zuzendaritza Batzordeak aztertu eta definituko duen kasuistika, proposamen gisa, eta lehentasunezko beheranzko ordenan, gutxieneko lanbide soldata jasotzen duen familia bateko partaide izatea, gurasobakarreko familia bateko partaide izatea, minusbalidua izatea eta etxetik kanpo bi ezkontideek lan egiten dutenean).

Urte batean eskolan ibilitako haurrek hurrengo ikasturtean ez badira egon behar, izena emateko epe berean baja horren berri eman beharko dute. Ikasturtean zehar sor daitezkeen bajak direla eta diru kontuetarako, Zerbitzuaren prezio baimenduen inguruan Udalbatzarrak erabakitakoari jarraituko da.

6. artikulua.

Hiru hilabetetik hiru urte bitarteko haurrak onartuko dira, hau da, eskola zikloan sartzeko adina duten artekoak.

7. artikulua.

Zerbitzuaren orduak: Goizeko 7,30etatik arratsaldeko 19etara.

8. artikulua.

Haur eskolan zerbitzuak eskaintzeagatik sortutako kuota edo tarifak Udalak ezarriko ditu Osoko Bilkuran eta prezio publiko baimenduak direnez, Legean ezarritako arauen arabera aldagarriak izan daitezke.

9. artikulua.

Hezitzaileak dagozkien gelatan honela banatuko dira:

— Oti urtebete artekoak: 6-8 haur.

— Urtebetetik 2 urte arte: 10-12 haur.

— 2 urtetik 3 urte arte: 14-17 haur.

Janaria, jantokia, e.a. moduko laguntza zerbitzuak emateko, nahiko langile behar da, eta zerbitzu osagarri horiek emateko agintari aginpidedunek ezarritako arauak jarraituko dituzte, eta Udalak jarriko ditu zerbitzu horien prezioak, emandako zerbitzuen autofinantzaketako irizpideak jarraituz, eta prezio horien berri emango dio Udalari ikasturte hasieran, jakin dezan eta oniritzia emateko.

10. artikulua.

Haurraren hezkuntzarekin harreman zuzena dutenak gurasoak direnez, haur eskolak komeni den moduan funtzionatzeko behar den kudeaketan gurasoen partaidetza bideratuko duten organo eta bideak sustatuko dira, hezkuntza-lana zerbitzuko profesionalen ardura dela kalterik gabe.

11. artikulua.

Zuzendaritza Batzordea eratuko da, udal zerbitzuaren identitate-ezaugarriak, hezkuntza jarduera eta helburu nagusiak betetzen direla egiaztatzeko xedea duena.

1) Osaketa:

Honako hauek ostuko dute zuzendaritza batzordea:

- a) Eskolaren zuzendaritza, zuzendatritza Batzordearen lehendakaria izango dena.
- b) Udaleko ordezkari bat (Udalaren hezkuntza saileko zinegotzi-ordezkaria).
- c) Irakasleek euren artean hautaturiko hiru ordezkari izanik, maila bakoitzeko irakasle bat.
- d) Gurasoek euren artean hautaturiko hiru ordezkari izanik, maila bakoitzeko guraso bat.
— Bilera eratzailean zuzendaritza batzordeak komenigarritzat jotzen dituen funtzionamenduaren arauak onartuko ditu.
— Batzordeak gutxienez urtean birritan egingo ditu bilerak.
- 2) Zuzendaritza batzordearen eginkizunak:
 - a) Zentroaren hezkuntza proiektuaren ardatzak ezarri, onartu eta ebaluatzea, beti ere, irakasleek hezkuntza antolaketa eta plangintzarekin duten eskumenen kaltetan gabe.
 - b) Zentroaren zuzendaria hautatzea eta, bere kasuan, bi herenen gehiengoarekin partaideek aurretzeko harturiko akordioa tartean izanik, hautaturiko zuzendariaren izendapenaren dimisioa eskatzea.
 - c) Legeak eta erregelamenduak diotenari zurrin jarraiki ikasleen onarpenaz erabakitzea.
 - d) Zentroaren barne erregimeneko erregelamendua onartzea.
 - e) Zentroaren elkarbizitzarako kaltegarri izan daitezkeen jarrerari dagozkien helburu pedagogikodun zuzenketak ezartzea eta baita gatazkak konpontzen saiatzea ere., beti ere Hezkuntza erakundeek honetaz ezarrita dituzten arauen arabera.
 - f) Zentroaren aurrekontua onartu eta egikaritzea.
 - g) Instalazioen eta eskolako ekipamenduaren berrikuntza eragitea eta berauen ohiko mantenimenduaz zaintzea.
 - h) Zentroaren programazio orokorra eta eskola aktibitate osagarriak onartu eta ebaluatzea.
 - i) Hezkuntza zein kultura helburuekin beste zentro eta erakundeekin elkarlanean aritzeko jarraitu beharreko ardatzak finkatzea.
 - j) Zentroaren funtzionamendu orokorra, eskolako errendimendua eta Hezkuntza Administrazioak zentroaz egiten duen ebaluaketa onartu eta ebaluatzea.
 - k) Erregelamendu organikoen barruan zentroari aitortzen zaizkion beste edozein eskumen.
 - l) Hezitzaileen irizpideak eta haur eskolaren helburuak jasoko dituen urteko plangintza ezagutu eta berretsi.
 - m) Urteko memoria eta zentroaren balantze ekonomikoa ezagutu.
 - n) Zerbitzuaren prezio publikoa arautzen duen Ordenantzari dagozkion tarifak gainbegiratzea Udalari proposatu, zerbitzuaren Erakunde Emakidadunak ezarritako eskubideen kalterik gabe.
 - o) Zerbitzua hobetzeko balioko duten Araudi honen aldaketak proposatu Udalari.

p) Udala eta emakidadunaren artean kontratua interpretatu eta jarraipenean sortzen diren gaiak ezagutu.

— Zentroaren ohiko funtzionamendua eramateko eta jarduera pedagogikoa zein asintentziala kudeatzeko zerbitzuaren kontzesionarioak erabiliko du berez duen Batzorde Kudeatzaileak edo bere kasuan, izan ezean, sortu beharko zuena, non Udalak, gainerako ikastetxeetan duen bezala, udal ordezkaria izendatuko duen. Batzorde Kudeatzaileen honen partaideak Zuzendaritza Batzordeak hautatuko ditu.

12. artikulua.

Irakasle edo hezitzaile taldea haur-talde guztietako hezitzaileez osatua izango da, hauek beharrezko ikusten dituzten adituekin. Hezkuntza aldearekin zerikusia duen guztiaz arduratuko dira eta horretan eragina izan dezaketen faktoreekin.

13. artikulua.

Funtzionamendu-arauak:

A) Orokorrak:

1. Indarreko ordu, zerbitzu eta tarifak haurra onartzen den momentuan jakinaraziko zaizkie gurasoei. Horrekin batera, oinarrizko funtzionamendu-arauak azaltzeko agiria banatuko zaie.

2. Aurrikusitako helburu, programa eta zerbitzuak gutxienez urtero gainbegiratuko dira, egoeraren bat aldatzen bada gomendagarria bada.

3. Asistentzia-hutsegiteak zentroari jakinarazi beharko zaizkio eta arrazoitugabeak direnean araudi honen diziplina-erregimenean ezarritakoa erabili daiteke, betiere hutsegite horiek haurra zentrori egokitzeko prozesuan eragina badute.

B) Medikuntza-osasunezkoak:

1. Osasun-Mediku titularraren erantzukizuna izango dira zentroko haurren osasun-baldintzak, horri buruz hartu beharreko neurri guztien berri emango du.

2. Haurra zentrori etortzean mediku-ziurtagiria ekarri beharko du. Osasun egoera onean ez dauden haurrak ez dira zentroan onartuko, ez behintzat duen gaisotaunak beste hurrekin elkarbizitzeko arazoak ez dizkiola sortzen egiaztatzen ez duen bitartean.

14. artikulua.

Araudi honetan ezarritako arau-hausteak isunekin zigortu ditzake Udalak, Zuzendaritza Batzordeak aurrez jarritako espedientea eginik, lege barruan baimendutako mugen barruan.

AZKEN XEDAPENA

2001eko ekainaren 12an egindako bilkuran Udalbatzarrak onartutako araudi hau, 7/85 Legearen 70.2 artikuluan aurrikusitakoaren arabera sartuko da indarrean eta aldatzea edo ezereztea proposatzen den bitartean indarrean jarraituko du.